

Gazte Koordinadora Sozialista

Gaur hemen elkartu gara, Gasteizko Auzolana frontoian, Gazte Koordinadora Sozialistaren sorreraren berri emateko, eta Euskal Herriko leku desberdinetatik etorri gara berari babes adieraztera. Horrekin batera, ildo politiko baten aldarrikapena eta defentsa egitera ere etorri gara. Izan ere, guztiok batzen gaituen hautua sozialismoaren defentsa da. Gizarte burgesaren aurrean bide politiko bakarra sozialismoaren bidea dela pentsatzen eta defendatzen dugulako batu gara hemen. Gizarte burgesaren eta berak sortzen duen miseriaren aurrean altxatzen gara, gure helburua dominazio burgesa eta zapalkuntza forma ezberdinak gainditzea delako.

Oraindik harro paseatzen da zuzengabekeria gure kaleetatik: familia pobreak etxeetatik botatzen ditu, langileak hiltzen ditu, gazteria kriminalizatzen du. Baina egunerokotasuneko basakeria kapitalistaren aurrean Euskal Herriko txoko ezberdinetan sortzen ari diren adierazpen politiko sozialisten existentziak gure bihotzak pizten eta puzten ditu. Itxaropentsu bizi dugu azken urteetan indartzen doan tendentzia politiko sozialistaren garapena: gaztetxeen borroka esperientzia eredugarriak, ikasleen borroka, klase feminismoaren gorakada, teoria iraultzailearen lanketa eta hedapena. Gizarte burgesari kontrajartzen zaizkion adierazpen sozialistak dira guztiak, miseria garaiotan duintasunaren disdira direnak. Duintasuna langileriaren indar politikoan dago eta ezin da termino ekonomikoen bidez neurtu. Duintasuna proletargoaren bihotzean bizi da eta borondate iraultzaileaz elikatzen da.

Gazte Koordinadora Sozialista errealitate horretatik jaio da. Koordinadora honetako militanteok adierazpen politiko sozialista horietan hezitako eta hazitako milintateak gara. Adierazpen sozialista horien faltan ez ginateke hemen egongo. Eta gaur hemen GKS aurkezten bada, maila lokaleko espresio zein gaitasun sozialista horiek indartzeko baino ez da. Gure helburua gaitasun eta espresio horiek aurkitzen dituzten mugak gainditzeko baldintzak jartzea da. Sozialismoaren bidea elikatzeko ekarpen xume bat baino ez da gurea eta, aldi berean, hori guztia.

Baina zaila da indarrak biderkatzea batasunik gabe. Botere burgesak sortzen duen banaketa eta atomizazioaren aurrean, guk klase batasunaren aldeko aldarrikapen ozen eta argia egiten dugu. Klase eta borroken batasunera iristeko bidea ireki beharra dago eta bide hori langile klaseak bere organizazio politikoaren bitartez egin behar duelakoan gaude. Batasuna eta independentzia politikoa botere sozialista indartzeko beharrezko arma politikoak dira. Horiek dira langile mugimenduaren esperientziak irakatsi dizkigun eta gure egiten ditugun printzipioak.

Gazte Koordinadora Sozialista gazte problematikaren auziari klase perspektibatik erantzuteko sortu da, badakigulako gazte problematika ezin dela ebatzi klase problematika ebatzi gabe. Horretarako ezinbestekoa zaigu, alde batetik, gazte problematikaren lanketa politikoa egitea. Gazte langileok pairatzen dugun zapalkuntza gizarte burgesaren funtzionamendu orokorraren menpe ulertu behar dugu, gazteri langileak botere burgesarentzat betetzen dituen funtzioak identifikatu eta hauek borrokatzeko. Bestetik, ezinbestekoa zaigu kultura eta ildo politiko sozialista garatzeko langile instituzioak sortzea. Gure burua defendatu eta indartzeko, klase elkartasunarekin batera langile boterea eraiki behar dugu.

Horrek guztiak, besteak beste, ondorengoa esan nahi du: beharrezkoa zaigula gizarte kapitalistak sortzen duen harreman eredu fragmentarioaren aurrean printzipio etiko eta harreman eredu komunistak garatzea; beharrezkoa zaigula borroka komunitatea indartzea; beharrezkoa zaigula izaera kritikoa eta sakontasuna lantzen joatea; beharrezkoa zaigula gehien kolpatuta dagoen estratuaren defentsa eta babesaren gure egitea; kultura sozialista berpiztea; instituzio proletarioak hedatzen joatea; teoria iraultzailea lantzea; instituzio disziplinarioak insumitzea; gure ospakizun eredu politikoa sortzea. Finean, langile boterea gurrupuztea dagokigu.

Batek zioen diru zakarrak ez duela bihotzik, eta egia da; egunero frogatzen dugu hori gure bizitzekin. Dekadentzian eta ofentsiban dagoen gizarte burgesaren aurrean desjabetuon eta sozialismoaren defentsa egitea dagokigu militanteoi. Gure bihotzak, diru zakarraren ordean, burkideon borondate eta grin iraultzaileaz elikatzen dira. Miseria garaiotan sortzen ari den grin eta borondote iraultzaile guztia norabide politiko iraultzailean lerrokatu behar dugu borroka ehundu behar dugu. Borrokara etorri gara!

Gora Eukal Herria Askatuta!

Gora Iraultza Sozialista!

Gasteizen, 2019ko otsailaren 17an.